

Aretxagazeta

Sapuak eta sugak erre,
garixek eta artue gorde,
gora, gora San Juan

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

Juan Karlos Bengoa
aukeratu dute alkate/08

HEZKUNTZA

Kilometroak 2005
Eskoriatzan /09

LEINTZ GATZAGA

Osatu da
udalbatza berria /10

UDALBATZA: ARRITXU OLIDEN IZENDATU DUTE ALKATE/4 • KIROLAK: ERRASTI ANAIK TXAPELDUN/6

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 21
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 22
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskaltegia 943 79 21 68
Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
Hezibide elkarteak 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Instituta 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxiko ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 71 19 59
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Saretxo 943 71 26 56
Taxi geltokia 943 79 22 33
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALZAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Deiak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 79 71 99
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdia 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Ofati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatutan: 18:30
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: GOROETA
Domekan 12:30ean.

MENDIOLA
Domekan 11:30ean.

GELLAO/GALARTZA/IZURIETA
Hilabete honetan ez dago mezarik.

OHARRAK

SAN JUAN BEZPERA
Astelehenean izango da San Juan bezpera. Kultura Sailak urteroko egitaraua antolatu du: 18:30ean buruhandiak irtengo dira, txistulariek; 19:00etan, Loramendi Dantza Taldearen eta Leizarra Musika Eskolaren emanaldiak; 21:00etan, Trikiotz taldearekin dantzaldia; eta 22:20an, San Juanetako Zortzikoa egingo dute Loramendi Dantza Taldekoek; 22:30ean, San Juan Sua; eta gauerdian inguruan, tantaia altxatuko dute.

KURTZEBARRIKO KARTEL LEHIAKETA
Kurtzebarriko 75. urteurrena ospatzeko Kartel Lehiaketa antolatu du Murruxikok. Ekainaren 23a baino lehen Murruxikoko lokalera eroan behar dira.

ANDRAMAIXETAKO KARTEL LEHIAKETA
Andramaixak iragartzeko erabiliko den kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du Kultura Sailak. Ekainaren 23a baino lehen udaletxera edo kultura etxera eroan behar dira.

ANDRAMAIXETAKO ESALDI LEHIAKETA
Esaldien Lehiaketa antolatu dute Kultura eta Prebentzio sailek. Aurkezteko azken eguna ekainaren 23a da.

LORAMENDIREN AGENDA

'BENTRI MAGIK'
Errota Kulturalaren barruan, Loramendi EEK *Bentri Magik* ikuskizuna ekarriko du ekainaren 26an, eguna, 22:00etan, udaletxe zaharrera. Elvi eta Ramon Irizarrek eskainiko dute ikuskizuna.

'DAKIXENAK EINDAIXELA'
Aste honetan banatu da ikasturteko azken zenbakia. Aurreko zenbakiaren irabazlea: Nekane Raso.

ORAINDELA 8 URTE ARETXABALETAN

Juan Antonio Rodríguez izendatu zuten alkate

Orain dela zortzi urte ere ekainean osatu zuten udalbatza. Orduan HB taldeak jaso zituen boto gehien, baina alkatea aukeratzeko orduan, EAJ alderdiko alkategai Juan Antonio Rodríguezek EAJ, EA eta PSOE alderdien botoak jaso zituen, eta hura izan zen alkate.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru



"Dunbia"
Zintzarri handia.
—Gabaz entzuten da zaldixen dunba-otsa.

ZORIONAGURRAK



LEINTZ GATZAGA
Xabier Fernández
16an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Josu Irure
20an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Alaitz, Eñaut eta Manex.



ESKORIATZA
Uxue Beloki
20an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Jose Fuensanta
22an. Zorionak, amonaxo! Gureako zure lankideak.



ARETXABALETA
Jon Unanue
23an, 6 urte. San Juan Suen berotasunek gozatu daixela zeure egune.



ARRASATE
Mara Hernández
25ean, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

Zorionak!
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ARETXAGAZETAN bidez! Ekar ezazu bere argazkia* eta emaitza ezusteko ederra!
Doan!

BABESLEA

FOTOSINTESIS
argazkilaritza

Errebelatu guztiak 24 ordutan
Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak
Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

Taberna Berri jatetxea

Durana, 26
ARETXABALETA
Tel. 943 79 20 67

OSKAR GARAJEA

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4
ARETXABALETA

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala


Andra Mari Auzunea, 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

Mortin
erloju-denda

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

ATREBENTZIAEZPADA/ Aurten, galipota dala-eta, hartuko dozu baiñurik Euskal Herriko kostan?




JOSE ANTONIO RIVILLA
Langillie

Bai, zergaitik ez? Nik neuk leleno baiñue hartu dot Donostian. Ikusi neuen galipot apur bat, eta hankak be zikiñdu jaten, baiñe ze egingo dutzegü ba? Baiñau barik ez naz geratuko!




ESPE NUÑO
Langillie

Kostaldera fateko asmue, behintzet, badauket; gero, ikusi egin biher uretan sartzen nazen edo ez. Zelanbait, errespetue emuten dust. Hala be, San Juanetan Lekeittiora fan gure dot.



IMANOL CARMONA
Langillie

Baietz uste dot. Urtero moduen, Zarautz aldera fateko intentziñue dauket, eta baiñuren bat edo beste hartuko dotela uste dot. Galipotak, oingoz, ez dust bilddurrik emuten.



JOSE LUIS TXINTURRETA
Langillie

Bai, bai, ez dago bilddurrik. Egixe esatiarren, ez naz baiñuzalie, baiñe fan ezkeru bustiko nitzake. Hori bai, uste dot lehenago garbixago egoten ziela gure inguruko hondartzak.



ARANTXA IZURA
Langillie

Ez. Badaezpada, aurten ez ni ez nere familixakorik ez da iparraldeko hondartzetan baiñatuko. Getarixara fateko ohitturie daukogu, baiñe aurten eguzkixe hartzen be ez naz fango.



ANTONIA HERNÁNDEZ
Langillie

Jeneralien ez dot denbora askorik eukitten, baiñe beti ahaleginketan naz egun pare bat hartu eta inguruko hondartzaren batera faten. Galipota ikusi ezkeru ez naz uretan sartuko.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK 'BERRIA' EGITEKO LAGUNTZARI Euskaldunon Egun-karia-ren alde sortutako batzordeko kideek, beste behin ere, lanean segitzen dutela erakutsi digute. Lehenengo, harpidetza kanpaina egin zuten eta emaitza paregabeak lortu zituzten; orain, berriz, akzioak saltzen dabilta jo eta su. Eta azken kanpaina horretan dagoeneko 6.000 euro batu dituzte. Bejondeizuela! / A.L.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN / 04

Udalbatza berria osatuta

Zapatuan izendatu zuten Arritxu Oliden alkate, eta datozen lau urtetarako udalbatza osatu zuten.

ASTEAN BEHIN / 05

San Juan bezpera

Astelehenean ospatuko dugu San Juan bezpera. Sua eta tantaia izango dira protagonista.

KIROLAK / 06

Errasti anaiak, txapelkun

Debarroko Pilota Txapelketa irabazi dute Ibon eta Unai Errasti pilotari aretxabaletarrek.

ASTEKODATUA

3.380

EURO GASTATUKO DITUZTE SAN JUAN FESTAN

Udaleko Kultura Sailak 3.380 euro gastatuko ditu aurten San Juan jailetan. Festa San Juan bezperan egingo dute eta diru gehien Trixio taldeak eskainiko duen emanaldian gastatuko dute.

BESTEKEESANA

“Nire aldetik, Jaungoikoari, nire herriari (Aretxabaleari) eta herriko kristau taldeari zor diet gaurko egunez nire eskerrik onenak.

Umiltasunez jasoko dut domekan elizbarrutiko lagun guztiak egingo didaten omenaldia. Hala ere, omenaldi hitza baino gurago dut ospakizun hitza erabili.

Nire nortasunaren garapena hemen izan da, Aretxabalean. Herriarrek ere zerikusi handia izan dute horretan, horregatik esan gura dut niretako herriar horiek guztiak maitagarriak izan direla.

Urte ugari pasatu ditut herriko parrokan eta auzoetako elizetan meza ematen. Azkenaldian, baina, osasunak ez dit asko lagundu eta horregatik, atsedenaldia hartu eta erretiratuta ibili naiz.

ON BITORIANO ARANBURU
GOITB/03-06-18

HERRITARRENBERBAK/ Arantxa Jaka



Nola deitu?

Azkenaldi honetan hitz berri batzuk hasi dira jartzen modan gure hiztegian: *mobbing*, *bullying*... Noski, denak ingelesez, honek indar gehiago ematen duela dirudi eta. Dena den, bakoitzaren esanahiak edota fenomenoak kezkatzen nau. Lehenengoak adierazi nahi du eraso laboralak jasatea; eta bigarrenak, berriz, ikasle bat biktima bihurtzea beste ikasle baten ekintza negatiboak jasaten dituelako. Honen guztionen inguruan ikerketak gero eta zabalagoak dira eta, ondorioz, salaketak eta sententziak. Aipatzekoa da, gainera, fenomeno hauek gehitzen doazela, eta horren testigu asko gara, modu batera edota bestera.

Ez nuke nahi gaurkoa kexa artikulua bihurtzea baina bai iritzi eta bizipen pertsonal baten oihartzuna izatea. Erasotuak sentitzen baikara: gure etxeko ataria zikinkeriaz josita agertzen den bakoitzean; etxeko pertsianetan gero eta

zulo gehiago eta handiagoak ikusten ditugunean, harriekin edota balinekin eginak; irainak entzun behar ditugunean gure eskubidea agertzean; etxeko txirrina erreta edota apurtuta agertzen den bakoitzean; gure jardinetako zuhaitzak edota landareak puskatzen direla ikusten dugunean... Eta hau guztiau ia egunero gertatzen zaigu. Nola deitu honi guztioni: *mobbullying*? Eta, noski, erasotuak sentitzen gara erakundetan erantzuten zaigunean hau guztiau hiri arazo bat dela.

Nik badakit arazoa ez dela erraza eta beraiek ez dauzkate la giltza guztiak; baina uste dut, baita ere, ausardia, sormena beharrezkoa dela irtenbideak bilatzeko, planteatzeko orduan. Denok elkarturik zerbait egin dezakegu, bakarka ezer gutxi. Eta honekin ez dut pertsona bat ere salatu nahi, ekintzak baizik. Pertsona guztiak errespetu bat merezi du, baina ekintza guztiak ez dira errespetagarriak.

“Erasotuak sentitzen gara: gure etxe ataria zikinkeriaz josita agertzen denean; irainak entzuten ditugunean...”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@golena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

Golena
Komunikazio Zerbitzuak

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaleako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Izenak eta izenak

Izen ugari dakart gaur. Hori bai, aittetu leikien izenak. Kirol kontuekin hasiko naz. **Oier Etxebarriak** Zarauzko triatloia egin euen joan zan zapatuen. Bero apurren bat pasatu biherko euen, baiñe gogor hantxe!

Beste kirol zale batzuk, ostera, Vigora joan zien. Danak ezin aittetu, baiñe **Ibai Landaluze** eta **Gorka Gabilondo** bai, *El Mundo Deportivo* egunkariko azalien urten euien-eta. Kirolei dagokixenez, **Errasti anaiek** txapel-dun izen gittuen, eta herriko xakelarixek be ez zien bape txarto ibili Gipuzkoako txapelketan.

Kiroletatik enpresa mundure egingo dot salto. Izen be, Fagorren batzar orokorra egin barri daukie eta aretxabaletar bi daz Kontseilu Orokorrien, idazkari lanak egingo dittuen **Aitor Irure** eta bokala izengo dan **Mikel Uribetxebarria Aldalur**. Ia ez dutzien lan larregi emuten kargu barrixek.

Bukaketako Madrilen pozik egongo diela komentau besteik ez. Batetik Realak galdu Vigon eta gatxa oin txapeldun izetie, eta bestetik euskaldunok mutur joka geure artien. San Juan bezperako gabien espirtu txar guztixek erre, eta guztiz garbittute jaiki zatezen desio dotzuet. Neu, behintzet, hortantxe saietuko naz.

UDALBATZA/ Herritar ugari hurreratu ziren osoko bilkuren aretora, eta "lapurrak!" izan zen gehien entzun zen oihua

Arrixu Oliden izendatu zuten alkate, baina protestak eta tentsioa izan ziren nagusi zapatuan

MIRARI ALTUBE

Joan den zapatuan eratu zuten udalbatza, eta espero zen moduan, Arrixu Oliden izendatu zuten alkate. Herritar ugari hurreratu ziren osoko bilkuren aretora, Aretxa plataformari botoa eman ziotenak gehienak, eta protestak eta tentsioa izan ziren nagusi.

Zapatuan eratu zituzten udalbatza berriak. Gurean 11:30ean hasi zen osoko bilkura, eta Arrixu Oliden izendatu zuten alkate, protesta artean.

ARALARKO LAUGARRENA FALTA

Hortaz, osatuta dago datozen lau urteotan izango dugun udalbatza. Alderdi bakoitzak bere alkategaiari eman zion botoa, eta Arrixu Oliden izendatu zuten alkate, EAJ-EA koalizioiko sei botoekin. Aralar alderdiko laugarren zinegotzia, bestalde, ez zen agertu ekitaldira, Aralarrek eserleku hori Aretxa plataformari dago kiola uste duelako.

PROTESTAK ETA TENTSIOA

Hamar minutu eskas iraun zuen osoko bilkuran tentsioa izan zen nagusi. Aretxak deialdia egin zien herritarrei udaletxera joateko protesta egitera, eta ehun



Ehun lagunetik gora egon ziren osoko bilkuren aretoan zapatuan, eta alkate izendapenaren kontra egin zuten protesta.

lagun inguru batu ziren. "Lapurrak!", "putxerazoa!", "PP eta PSOE faxistak!" eta antzeko oihuak entzun ziren bilkurak iraun zuen bitartean. Bukaeran,

Josu Atxagak, Aretxa legez kanpo egongo ez balitz zinegotzi izan beharko lukeenak, idatzi bat irakurri zuen eta Aralar alderdiko zinegotzi Xabier Sarasuak beste

bat. Gainerako taldeetako ordezkariak ez zuten ezer gaineratu. EAJko zinegotzietan batzokiraino jarraitu zieten herritar batzuek, "lapurrak!" oihukatuta.



Giro polita eta jolas ugari Kurtzebarri Eskolako egunean

Ikasturtea bukatzeaz dago, eta joan den zapatuan Kurtzebarri Eskolako eguna ospatu zuten, urtero moduan. Ikasle, irakasle eta guraso ugari batu ziren, eta hainbat ekintza egin zituzten elkarrekin: mendira irteera, herri kirolak, bazkaria, dantza... Giro polita izan zuten egunean barrena, eta zapatuan egin zuen beroari urez betetako puxikekin egin zioten aurre umeek, gazteek eta ez hain gazteek. /M.A.

Iber

★ Loteria ★

✿ Paper denda ✿

✱ Liburuak ✱

Otalora 2.
ARETXABALET
Tel.: 943 79 04 39

Angelines

AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte, 16 • 943 79 61 42
ARETXABALET

Expres



Santakurtz, 16
943 79 23 43

IRIARTE

Umeen denda

Helduen lentzeria



Durana, 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALET

Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALET

OHITURAK/ San Juan eguneko ohiturak galtzen doaz poliki-poliki

San Juan bezpera: magia eta usadioa batuko dituen gaua

MIRARI ALTUBE

Asteleheneko gaua berezia izango da: San Juan bezperako gaua da, hain zuzen. Urteko gau motzena da, baina magia betetako. Sua izango da protagonista, eta horren inguruan antolatu du Kultura Sailak jaia. Santa Ageda mutilek, bestalde, tantaia jasoko dute.

Aretxabaletan ez dugu San Juan jairik egiten; hala ere, San Juan bezperako gaua eta San Juan eguna bera oso esanguratsuak dira askorendako.


SUA ETA TANTAIA

San Juan bezperako gauak egiten dio ongiatorria udako solstizioari. Urteko gau motzena da, eta suaren inguruan batuko dira herritarrak. Urteko uztak babestu gura izaten zituzten suaren inguruan, eta abarrak erre bitartean koplak abesten zituzten: *Sorginak eta lapurrek erre; artuek eta garixek erre* edo *Sapuek eta sugak erre; garixek eta artuek gorde; gora, gora San Juan*. Gaur egun, sua pizten dutenean, San Juan kantua abesten dute herritarrek.

Sua itzali ostean, gauerdian bueltan, tantaia altxatuko dute datorren urtean Santa Ageda mutil izango direnek. Lehen tantaia ostutakoa izan behar zuen, baina gaur egun ez da horrela izaten. Azala zuritu eta gero, aza, kipula, letxuga edo berakatzak jartzen diote tantaia puntan; orain, Ikurrina ere bai. Altxatu ostean, tantaia barrenean txiza egitea ere ohitura da.

IRAK, GURUTZEA ETA LORE SORTA

San Juan bezperako gauaren ostean San Juan eguna dator. Egun horrek lehen besteko garrantzirik ez duen arren, oraindik askok ospatzen dute. Eguna argitu orduko irak botatzen dituzte ate aurrean, eta arantza zuriz egindako gurutze txikia jarri ateburuan. Ira belar pobrea ei da, eta pobretasun hori uxatzeko erabiltzen dute. Ateburuan jartzen duten gurutzearekin, ostera, horeiak, hau da, ekaitzak uxatu gura izaten dituzte. Baserritarrek lore sorta egi-



Oraindik ere atarte batzuetan irak botatzen dituzte lurrera eta gurutzea jarri atean.

*Sua itzali ostean,
gauerdian
bueltan, tantaia
altxatuko dute
Santa Ageda mutilek*

teko ohitura ere badute: San Juan loreak, urrebotoiak, kuku-freak... Denak bat egin eta sorta dotorea egiten ahalegintzen dira. San Juan eguneko mezetara eraten dute gero, bedeinkatzeko, eta horrek ere ekaitzetatik babestuko dituelakoan daude.

AURTENGO OSPAKIZUNAK

San Juan bezpera girotzeko ardurak Kultura Sailak dauka, eta aur-

*Ateburuko
gurutzearekin
horeiak, hau da,
ekaitzak uxatu gura
izaten dituzte*

ten ere egitarau polita antolatu du: 18:30ean, buruhandiak irten-go dira txistulariekin; eta 19:00etan, Loramendi Dantza Taldearen eta Leizarra Musika Eskolaren emanaldiak egongo dira; 21:00etan, bestalde, dantzaldia egongo da Trikiario taldearekin; 22:30ean, San Juan sua piztuko dute, eta gauerdian inguruan tantaia altxatuko dute Santa Ageda mutilek.

LABUR

Urkuluko urtegiaren hainbat amuarrain hilda aurkitu zituzten martitzen goizean

Martitzen goizean aurkitu zituzten herritar batek hainbat amuarrain hilda Urkuluko urtegiaren. Itxura guztien arabera, norbaitek urtegia amuarrainez birpopulatu gura izan zuen. Dena dela, ez zuen modurik egokiena erabili; izan ere, garaiera handitik bota zituzten uretara arrainok, eta uraren kontra kolpea hartuta hil ziren guztiak.

Martitzen arratsaldean, Gipuzkoako Ur Partzuergoko arduradunek uraren oxigeno maila neurtu eta hark kalitate ona dela frogatu zuten. Bide batez, hildako arrainak batu egin zituzten.

Helduen Heziketa Iraunkorreko eskolak emateko gelak inauguratu dituzte herrian

Joan den astean inauguratu zituzten Helduen Heziketa Iraunkorreko eskolak emateko gela biak. Markole auzoan daude, KZGunea jarri zuten etxabe berean. Aretxabaletako Udalak utzi dizkie gela biok; batean mahaiak eta aulkiak jarriko dituzte eta bestean, ordenagailuak. Aurten Aretxabaletako 15 bat ikasle Arrasaten ibili dira ikasketak egiten, baina datorren ikasturtean, irailetik aurrera, ez dute herritik alde egin beharrik izango.

TXUTXUMUTXUA



Omenaldi beroa egin zioten On Bitorianori

Joan den domekan egin zioten aretxabaletarrek omenaldia Bitoriano Aranburu abadeari. Hain zuzen, aurten apaizgoaren urrezko ezteiak bete dituelako egin zioten omenaldia, eta 160 lagun inguru batu ziren Taberna Berri jatetxean. Aurretik, baina, meza esan zuen omenduak, eta hamabi abade izan zituzten inguruan; batzuk, kanpoan dauden herriko semeak, Aita Migel Lete eta Jon Molina esaterako; eta beste batzuk, abade ibilbidean lagun izan dituenak, Anjel Ipiña tartean. /M.A.

EZKUTU
TABERNA

ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte, 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

PAGALDAI

*Opari denda
Lurrindegia*

Durana, 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
ARETXABAleta
Tel.: 943 79 01 28

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABAleta

PILOTA

Unai eta Ibon Errastik jantzi dute aurten Debarroko txapela

Zugasti eta Lazkano arrasatearren aurkako partiduan 22-20 nagusitu ziren Ibon eta Unai

AMAGOIA LASAGABASTER

Ibon eta Unai Errastik irabazi dute aurten Debarroko Txapelketa. Joan den zapatuan, hilak 14an, jokatu zuten finala arrasatearren aurka. Norgehiagoka ikusgarria jokatu zuten lau pilotariak. Azkenean, baina, aretxabaletarrak nagusi izan ziren (22-20).

Tanto biren aldea bakarrik egon zen Elgoibarren jokatutako Debarroko Pilota Txapelketako finalean. Horiek, baina, nahikoak izan ziren Unai eta Ibon Errastik aurtengo txapela janzteko.

PARTIDU IKUSGARRIA

Ordubetez neurtu zituzten indarrak finalean. Errasti anaiek Zugasti eta Lazkano arrasatearrek izan zituzten aurrez aurre. Hasieran arrasatearrek hartu zuten aurre; zazpi tantoko errentarekin egon ziren aurretik. Aretxabaletarrak, baina, ez ziren kikildu, eta lehia berdintzeko gauza izan ziren. Eta ez behin bakarrik, 20 tantora ere egon ziren-eta berdinduta.



Partidu gogorra jokatu eta gero, Unai eta Ibon jantzi zuten txapela.

MIKEL ARANBURU

Arrasatearrek ez zuten erraz etsi gura izan, eta azken momentura arte gogor borrokatu ziren. Hala ere, Unai eta Ibon argi ibili ziren eta azkenean, 22-20 irabazi zuten partidua,

HIRUGARRENA

Azken garaipen horrekin, dagoeneko hiru aldiz irabazi dute Errasti anaiek Debarroko Txapelketa. Finalean, berriz, bost aldiz egon dira anaiok.

TRIALSINA

Hiru aretxabaletarrek Open Norte trialsin proban hartu zuten parte

Joan den domekan, hilak 15, Markel Uriartek, Aitor Muruak eta Unai Mendikutek Open Norte trialsin txapelketako bigarren proban hartu zuten parte. Irunen jokatu zen, eta bero handi egin zuen arren, kirolariak aurre egin zieten parean jarritako oztopo guztiei. Markelek gaztetxoan mailan jokatu zuen, eta laugarren gelditu zen, 39 punturekin; Aitor Murua eta Unai Mendikute ere ondo ibili ziren, eta sailkapenean postu ona egin zuten. Ekainaren 29an Open Norteko azken jardunaldia jokatu dute guztiek, Gasteizen.

XAKEA

Euskadiko Xake Bizkorreko Txapelketa irabazi zuen Arlutz Taldeko Fran Migelek

Joan den zapatuan, hilak 14, Bergaran jokatutako Gipuzkoako eta Euskadiko xake bizkorreko norgehiagokan hartu zuten parte Arlutzeko xakelariak. Gipuzkoako Txapelketan, banakako partiduetan, Fran Migel bigarren gelditu zen eta Aitor Alcaide seigarren. Taldekako lehian ere ondo ibili ziren, bigarren izan ziren. Euskadiko Txapelketan, bestalde, banakako partiduak bakarrik izan ziren jokoan, eta horietan irabazlea Fran izan zen. Aitorre Alcaidek seigarren egin zuen eta Esteban Romero hamargarren gelditu zen.

KIROL FOROA

Hainbat kirol elkarten foro bat sortuko dute, lankidetzaz bultzatzeko asmoz

Udaleko Kirol Zerbitzuak eskatuta, herriko hainbat kirol elkarten lankidetzarako batzarrek egin dituzte azkenaldian. Almen Kirol Elkarteko, UDA Txirrindularitza Taldeko, Dorletako Ama Txirrindulari Elkarteko, Murruxiko Mendizale Elkarteko kideak eta Udaleko kirol ordezkariek batu dira batzarrotan, eta guztien artean, kirol ekitaldiak egiteko foro bat sortzeko egitasmoa jarri dute abian.

HYDRASOIN:
hidratatze programa trinkoa
Presta zaitez udarako!


Zure altxor preziatuena
zu zeu zara

Zu zeu zara zure bizitzako
pertsona inportanteena

Horregatik zaindu beharra daukazu

Gemes
edertze aretoa

Durana 40 ARETXABALETA
943 79 99 18



ARETXABALETARRAKMUNDUAN

JUAN JOSE OLABE


73 URTE / MISIOLARI JESUITA / VENEZUELA

“Ez dut uste bueltatuko naizenik, jesuitok ez daukagu-eta erretirorik”

MIRARI ALTUBE

Aspaldi joan zen Juan Jose herritik. 1947an, jesuitek Loiolan duten prestakuntza etxera joan zen, eta urte bi geroago Venezuelarako bidea hartu zuen. Dagoeneko 54 urte daratza Venezuelan, eta hango herritartasuna dauka: “Aretxabaletako venezuelarra edo Venezuelako aretxabaletarra, ez dakit zer naizen; seguru asko, biak”, dio Juan Josek.

Venezuelara joan ostean 17 urte egon zen etorri barik; bigarren aldiz 10 urtera etorri zen, eta azken urteotan sarriago etorri izan da: “Han daukat neure bizimodua, baina familia Aretxabaletan, eta gustura etortzen naiz. Hala ere, ez dut uste hona bizi izatera bueltatuko naizenik, jesuitok ez daukagu-eta erretirorik”. 20 urte inguru egin zituen Juan Josek Venezuelako ekialdean, hango herri pobreeni laguntzen: “Aita Velas jesuitak sortutako giza proiektu baten ibili nintzen lanean. Ekimenaren leloa zen: *Heziketa asfaltoa bukatzen den tokian*. Hortaz, pentsa zein pobeak




ziren”. Gaur egun, ostera, Barquisimeto hirian dago, Venezuelako jesuita gazteak prestatzen dituzten etxean.

Azken urteotan oso aldaituta topatu du gure herria: “Aretxabaleta asko aldatu da. Herritarrak lehen bezain jato-

“Han daukat nire bizimodua, baina familia hemen, eta gustura etortzen naiz”

rrak eta alaiak direla frogatu nuen iaz, baina balio materialak gehiegi baloratzen dituzuela iruditu zitzaidan. Hala ere, badakit kolaborazio ekimen ugari bultzatzen dituzuela”. Venezuela eta Euskal Herria guztiz desberdinak izan arren, xehetasun txikienez gogorarazten diote gure herria: “Arto irinez egindako *arepa* deritzaion ogia egiten dute venezuelarrek, eta jaten dudana baikoitzean, Euskal Herriko taloekin gogoratzen naiz.

HURRETIK



Ritxi Briñas

Udaltzain

Mondraguetarra da, baiñe apirilla ezkerre geure herrixen dabil gora eta beheara udaltzain lanetan. Baja bat beteten etorri zan, eta oso gustora dabil; hortan, luzerako izetie espero dau.

Ze egitten dau mondraguetar batek Aretxabaletan?

Langabeziari konponbidie topau.

Noix arte?

Baja bat beteten nabil, eta ez dakit... Dana dala, luzerako izetie espero dot, gustura nabil-eta.

Ze biher da udaltzain ona izeteko?

Herritarrekin harreman ona eukittie, eta lasaixe izetie.

Baiñe beti ez dittuzu danen gustoko erabakixek hartuko, ez?

Bai, hala da, baiñe norberan jarreriek zerikusi haundixe dauko.

Lau udaltzain zabitze. Nahiko die?

Baietzienu nau. Ez daukogu aste bukararik ezta gabarik egin biherrik be; hortan, nahikue garela uste dot.

Lanbide honen alde txarrena?

Jentiek geurekin ordainketan dauela hasarre badau, nahiz eta beste batzuen aginduek beteten ibilli.

Zenbat multa jarri dittuzu apirilletik hona?

Lelengo hamabost egunien ez neuen bat be jarri, eta oin, egunien bat jarten dot.

Badaukogu aparkaleku problema-rik?

Ez dot uste. Obregatik dauz oin arazuek. Athleticzale batek Reala ligako txapeldun ikusi gure dau?

Bai eta ez. Lagun asko eta emaztie Realzalie die, eta eurengatik poztu egingo nitzake, baiñe irebaziz gero, horixe entzuten egon biherko naz!

Aretxabaletako bazter politena?

Auzuek oin ezagutu dittut, eta asko gustau jat; pasiuen fateko oso ondo dauz.

M. A.

NIREBIDAIAHURA/ Amaia Agiriano

Euskal Herriko itsasoa / 2002ko uda

Euskal Herria itsasertzean bukatzen dela uste duena oker dabil. Izan ere, Euskal Herriak itsaso azpian ere segitzen du, eta zoragarria ei da. Amaia Agirianok orain dela lau urte egin zuen urpeko murgilketa ikastaroa, eta geroztik, tartetxoren bat hartzen duen bakoitzean itsaso azpian ibiltzen da: “Murgilketa ikastaroa Mutrikun egin nuen, eta orain ere hara joateko ohitura daukat. Domeka goizetan joaten naiz, itsasoa oso zakar ez badago”. Asko Karibeko itsasora eta Seychelles uharteetara joaten dira arrainak eta urpeko koralak ikustera, baina Amaiaren esanetan ez dago haraino joan beharrik: “Ni ez naiz ibiltzen urpean ikusi behar ditudan arrainengatik, momentu zoragarri bat pasatzeko baizik. 15 eta 25 metro bitartean sartzen naiz, eta murgilketak irauten duen 40 minutuetan beste mundu baten sentitzen naiz; jakina, ingurua polita izateak beti laguntzen du”.


Euskal Herrian arrain ugari ditugu: “Olagarroak, itsas aingirak, txitxarroak, itsas izarrak... Marrazoen arrautzak ere ikusi izan ditugu”. Arrainez gain, urpeko erliebea oso kuriozoso da, eta hainbat eratako landareak daude: “Linterna oso garrantzitsua da; uretan behera egin ahala koloreek indarra galtzen dute, eta ingurua behar bezala estimatzeko argia behar da”.

Urpean beti taldean sartu behar da, ezustekorik gertatuta ere laguntza izateko: “Domeka goizetan bi aldiz irte ten da txalupa Mutrikutik itsaso barrura, eta taldetxo bat batzen gara. Uretan sartu aurreko bidaia isil-isilik egin ohi dugu beti, nor bere pentsakizunetan. Kanporako buelta, ostera, guztiz ezberdina da; ikusitakoaren gainean berba egin beharra izaten dugu”. Hortaz, urrutira joan barik egun bikaina pasatzeko aukera daukagu.

M. A.




Astia daukan guztietan urpean igeri egitera joaten da Amaia.



“Murgilketak irauten duen bitartean beste mundu baten nago”

“Marrazoen arrautzak ikusi izan ditugu Hondarribian”



Hirusta
Jatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

IBARRA
estankoa



PRENTSA ETA
IKASMATERIALA
Egunero zabalik

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77
ARETXABALETA



Miren & Zuriñe

Bitxitegia • Erloju denda
Bitxien diseinua
Bitxien konponketa

Otalora, 4 (eliza aurrekaldean)
Tel.: 943 77 13 57
ARETXABALETA

IOSU
HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte kalea
ARETXABALETA
943 77 03 08

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA

Aretxagazeta

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko ekainaren 20a / 129. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: S5200/99



Osoko bilkurako mahaietan, udalbatza osatuko zuten kideez gain, Kontzejupe herri plataformako hiru zerrendagai ere jarri ziren.

Juan Karlos Bengoak alkate kargua hartu zuen

AMAGOIA LASAGABASTER

Gainerako herri guztietan bezala, Eskoriatzan ere joan den zapatuan egin zuten udalbatzaren izendapen ofiziala. Ez zen aparteko istilurik izan batzarrean, baina Kontzejupe plataformako kideek agerian utzi zuten euren desadostasuna.

Ekainaren 14an, eguerdiko hamabietan puntuan hasi zen udalbatza berria eratzeko osoko bilkura. Udaletxeko areto nagusiko mahaiaren bueltan hauteskondeetan aukeratutako kide guztiak zeuden, PSE-EEko Julio Bellido izan ezik. Kontzejupe plataformako hiru zerrendagaik ere euren lekua hartu zuten osoko bilkurako mahaietan. Horiek *Ilegalani?* zioten kamisetak aldean zituztela egon ziren. Bestalde, herritar ugari hurreratu ziren udalbatzera, eta areto nagusia txiki gelditu zen. Gehienak Kontzejupeko kideak izan ziren.

BOZKETA

Mahaikideek udalbatzaren eraketa leial egingo zutela zin egin

ostean, alkatearen izendapenerako bozketari heldu zioten. Horretarako, bozka paperak banatu zizkieten mahaiaren bueltan zeuden kideei, Kontzejupeko hiru zerrendagaiei izan ezik. Ezkutuko botazioa egin eta gero zerbaketa egin zuten. Ezker Batuko zerrendaburu Xabier Zugastik boto bi jaso zituen, beste boto bi zuriak izan ziren, eta gainerako seiak EA-EAJko Juan Karlos Bengoarentzako izan ziren. Hortaz, boto kopuruaren gehiengo osoarekin, Juan Karlos Bengoa izendatu zuten datozen lau urteotarako Eskoriatzako alkate.

Horren harira, Juan Karlosek alkate kargua leialtasunez beteiko zuela adierazi zuenean, barrekar entzun ziren udalbatzako aretoan.

Kontzejupeko hiru zerrendagaik ere euren lekua hartu zuten osoko bilkurako mahaietan

ZORIONAK ETA PROTESTAK

Alkate berria izendatu ondoren, PSE-EEko Iñaki Pierruges zinegotziak hartu zuen hitza. Iñakik eskerrak eman zizkien bere alderdiari botoa eman zioten herritar guztiei, eta horren ondoren Juan Karlos Bengoa zoriondu zuen. Bitarte horretan berriro ere entzun ziren barrekar, eta, horrez gain, hanka hotsak atera zituzten han batutako herritarrek.

EGUN TRISTEA

Kontzejupe herri plataformako zerrendaburu Dorleta Kortazarrek ere hartu zuen hitza, eta ekainaren 14a egun tristea izan zela esan zuen. Eta gaineratu zuen inpotentzia eta amorruz begiak malkoz betetzen zitzaizkiola. Horrez gain, gogorarazi zuen 572 eskoriatzarrek ez dutela Udalean ordezkariarik izango datozen lau urteotan. Udaletxean zeuden herritar bik ere Dorletaren alde egin zuten eta Juan Karlosekin eztabaidan hasi ziren. Eta alkate berriak esan zuen guztiaren parte-hartzea errealitate bihurtzeko aukerak aztertuko dituela. Hala ere, Kontzejupekoen protestek aurrera segitu zuten.

LABUR

San Pedro jaietarako egitarau polita prestatu dute Jai batzordeko kideek.

Dena gertu dago San Pedroetarako. Jai batzordea osatu duten kideek orain dela aste batzuk hasi ziren egitaraua prestatzen, eta musika, antzerkia eta kirolak izango dira nagusi. Hilaren 26an hasiko dira jaiak, edadetuendako jaialdiarekin; hilaren 29an, domekan, Titin, Zezeaga, Xala eta Elkorro pilotariak izango ditugu herrian; eta hilaren 30ean, arrakasta izugarria izan duen *Kutxidazu bidea*, Ixabel lana antzeztuko dute. Hortaz, egongo da zerekin gozatu jaietan.

Lau ordu eskas behar izan zituen Ramon Gonzálezek Txikirri-Txikirri egiteko

Goizeko zazpitan irten ziren, Herriko Plazatik, 260 mendizale Txikirri-Txikirri mendi ibilaldiak dituen 40 kilometroei aurre egiteko. Eta lau ordu eskas behar izan zituen lehenengo kirolariak 40 ibilaldia egiteko; izan ere, Ramon González arrasatearra 10:45ean sartu zen Eskoriatzako plazan. Bost minutuko tartean beste hiru lagun heldu ziren arrasatearraren atzetik. Azkenak, berriz, 16:45ean sartu ziren. Bero itzela egin zuen arren, ez zen arazo larriarik egon.



Murgilketa ikastaro arrakastatsua

Oso harrera ona izan du kiroldegiko arduradunek antolatutako urpeko murgilketa ikastaroak. Maiatzaren 26tik ekainaren 6a bitartean, 29 lagunek hartu dute parte Asier Linazisoro bergararrak eman duen ikastaroan. Ikastaroak zati bi izan ditu: teorikoa eta praktikoa. Hala, teoriar sakondu eta igerilekuan praktikak egin eta gero, Mutrikura lau irteera egin dituzte, eta itsaso barrerako ikuskizunak liluratu egin ditu gehienak. Azkeneko bost urteotan 70 lagunek egin dute ikastaroa Eskoriatzan. Horren harira, ikastaro gehiago antolatuko dituzte datozen asteotan.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

SURADESAREN ZERBITZUA
Eguaztenero, 12:00etatik 13:00etara eskainiko du Suradesak zerbitzua udal-txean.

KIROLDEGIA ITXITA EGONGO DA
San Pedro jaiak direla eta kiroldegia itxita egongo da ekainaren 29an, 30ean eta uztailaren 1ean.

SAN PEDROETAKO ZENBAKI BEREZIA
Hilaren 27an, Ze Barrik? San Pedro jaien gaineko zenbaki berezia kaleratuko du: jaietako egitaraua, alkate berriaren agurra, jaietako protagonistekin elkarrizketak, herritarren iritziak...

AXTROKIREN AGENDA

KOADRILEN ARTEKO LEHIAKETA
Debagunek antolatuta, koadrilen arteko lehiaketa egingo da hilaren 23an Ezeiza Herri Eskolan, 18:00etan. 16 eta 36 urte arteko koadrilek har dezakete parte. Jokoa, afari ederra.

HEZKUNTZA

Ikastolaren izatea aldarrikatu gura du Arizmendik

AINZANE GARDOKI

Arizmendi Ikastolako Zuzendaritzak Arizmendi proiektua aurkeztu zuen komunikabideen aurrean. Ekainaren 12an sinatu zuen kooperatiba bakarra izateko hitzarmena Arizmendik; irailaren 1etik aurrera, hortaz, ikasurte berria hasten denean, juridikoki kooperatiba bakarra osatuko dute Arrasateko Ume-zaintzak, San Viatorrek eta San Frantziskok eta Eskoriatzako Almen Ikastolak.

Aurrera begira dituzten erronken berri eman zuten arduradunek: Arizmendiren izaeran baieztatu, sakondu eta sendotu, ikastolen proiektua berregituratu eta hezkuntza proiektu berria diseinatu eta ezarri gura dute. "Ikastola hemengo eskola da. Ikastolaren izaera publikoa aldarrikatu gura dugu; herritik sortutako ekimena da eta ikastola, herritarrek zuzentzen dutena eta herria bera duena jabe. Zerbitzu publikoaren izaera osoa dugu",

"Herritik sortutako ekimena da ikastola; herritarrek zuzentzen dutena eta herria jabe duena"

esan zuen Arizmendiko zuzendari Txaro Iraetak.

Leintz ibarreko ikastola bakarra izango da ia 3.000 ikasle dituen Arizmendi Ikastola. 2005ean, gainera, urriko lehenengo domekan egiten den Gipuzkoako ikastolen aldeko Kilometroak jaia antolatuko du Arizmendik. Aurten Lazkaon egingo dute eta datorren urtean, berriz, Zarautz eta Orio artean. 2005ean, aldiz, Aretxabaleta eta Eskoriatza artean egingo dute Kilometroak jaia. Arizmendi Ikastolak izango du ardura eta ibilbidea honakoa izango da: Almen ikastetxetik Copreci lan-



Haur Hezkuntzako proiektua guztiz gauzatu dauka Arizmendi Ikastolak.

tegira, handik bidegorritik bueltan Arientzara, eta handik Bolinatik pasatuta Arkarazora, eta

gero berriro Almenara jaitsi. Ikastolako partaideek izango dute zer eginik datozen hilabeteotan.


TXUTXUMUTXUA



Egun polita pasatu zuten Ezeiza Herri Eskolako umeek

Ekainaren 14an egin zuten Luis Ezeiza Herri Eskolako ikasle eta gurasoek ikasurte amaierako festa. Goizean goiz hasi zuten jaia, etxafuego jaurtiketarekin; horren ondoren, Koldotxo-k agurra egin zien eskolako patioan zeuden lagunei; bestalde, arazo teknikoek ikasleen ikuskizuna atzeratu egin zuten, baina gero, artista txikiak maila ona erakutsi zutela esan digute. Bazkarian 200 lagun batu ziren, eta dantza egin eta gero, bertan afaldu zutenak ere izan ziren. Ondo pasatu zuten seinale!

BEIRALAN KRISTALDEGIA




- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantentimientua
- Beiran naiz metakrilatoan neurria eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25
ESKORIATZA



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63

ENRIKE MAZMELA BOLINAGA HORTZ KLINIKA

Eduardo Gorosari, 3-1. Esk.
Tel: 943 71 47 36

Jose Ramon Pérezek alkate kargua hartu zuen zapatuan

AINTZANE GARDOKI

Joan den zapatuan, hilaren 14an, hartu zuen alkate kargua Jose Ramon Pérez arrasatearrak. Bost zinegotzirekin osatu zen udalbatzak alkatea aukeratzeko botazioa egin zuen. Hala, Jose Ramonek bost boto jaso zituen. Hortaz, hura izango da gatzagarren alkate.

Zapatuan, 12:30ak jota hasi zuten udalbatza berria osatu eta alkatea aukeratzeko ekitaldia. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan elkartu ziren orain arte udalbatza osatu duten zinegotzi batzuk eta zapatua ezkerreko udalbatza berria osatzen duten bost zinegotziak.

Adinaren Mahaia deritzona osatu zuten ekitaldiaren hasieran. Hain justu ere, Juan Mari Makazagak -kide guztien artean nagusienak (70 urte)- presidente lanak egin zituen eta gazteenak, Jose Ramon Pérezek (33 urte), bokal lanak.

Ibarreko beste herri askotan ez bezala, Gatzagan lasaitasuna izan zen nagusi, eta oso herritar gutxi egon ziren ekitaldian. Alkatea aukeratzeko ezkutuko botazioa egin zuten hautagaiek, baina lehenagotik hitzartuta zegoenari eutsiz, Jose Ramon Pérezek alkate izateko bost boto jaso zituen.

MAKILA ETA ZUMITZEZKO UZTAIA

Orain arte alkate izan den Joxerra Agirreurretaren eskutik jaso zituen alkate berriak agintaria-




Agintariaren makila eta uztaia eman zizkion Agirreurretak Pérezi, alkate berriari.

ren makila eta zumitzezko uztaia: "Niri Eugenio Otsoak eman zizkidan bai bata bai bestea. Hortaz, neuk ere horrelaxe ematen dizkiot agintari berriari. Uztaia, etengabeko lanaren sinboloa eida", esan zuen Joxerra Agirreurretak. Besteren batek, aldiz, uztaiak babesa adierazten duela esan zuen.

Eugenio Otsoak esan zuen berari duela urte asko eman ziola oraintsu arte Arrasateko alkate izan den Xabier Zubizarretak, eta gogo handiz hartu zuela.

Ekitaldia bukatuta, etxafuegoak bota zituzten udaletxeko balkoitik, eta gero, bapo bazkaldu zuten zinegotziek eta Udaleko langileek Gaztanuzketan.

TXUTXUMUTXUA



Sendabelarren gaineko hitzaldia

Sorginak taldeak antolatutako hitzaldian jende ugari egon zen. Eta han egon zirenek esan digutenez, oso hitzaldi interesgarria egin zuen Alberto Altubek. Horren harira, hitzaldian egon zirenek ibilaldia egingo dute hilaren 28an, inguruko belarrak ezagutzeko; aurrerago, ukenduak zelan egin ikasiko dute.

LABUR

Uztaileko udalekuearako begirale bi behar ditu Gurasoen Elkarteak (GUREL)

Hilaren 13an itxi zituen ateak ludotekak; izan ere, urria ezkerreko kinatxo bat jolas egiteko aukera izan dute herriko txikiak. Orain berriz, Gurasoen Elkarteak (GUREL) uztaileko udaleku irekiak prestatzen hasi da. Uztailearen 7tik 18ra izango dira udalekuak, eta tartan horretarako begirale bi behar ditu GURELek. Begirale lanetan eskarmentua izatea, euskaraz jakitea eta gidabaimena izatea beharrezko dira. Interesatuok deitu 943 71 97 67 zenbakira hilaren 25a baino lehen.

Ze barri?

Izan zaitez zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen...
gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21

ESKORIATZA
Tfno 714345
ERRETEGIA
MENDIOLA

Bazkari eta afariak

Astelenetan itxita
ESKORIATZA

**TOKI
ALAI
TABERNA**

Karajiloetan
espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

**NAIRA
Taberna**

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

**Calderería
Cantera, S.L.**
ALUMINIOAK

Zurgintza alumioa erabilia

Aingerugardakoa ibilbidea z/g
T. 943 71 49 11 F. 943 71 44 21
ESKORIATZA

**AZKOAGA
ESTANKOA**

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

**ALDATZ
TABERNA**

ESKORIATZA

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida

Zure etxearen osasun onerako



ESKORIATZA

RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA

"R.E.L.E."
Gotzon Beitia Lazkano

Denda:
Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65
Tailerra:
Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

AITZORROTZ
elektronika

- Tebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika
- Instalazio elektrikoak

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALETA

AIDE GAS S.L.

Loramendi 8, Aretxabaleta.
Tel.: 943 71 27 73 / 605 71 27 05

**Gasa • Berogailuak
Bainuak • Iturgintza**

PINTURAS



ESKORIATZA

- Pintura orokorrean
- Fatxaden pintatzea
- Iztukuak, eta abar

Olaeta 2, 1-ek. ESKORIATZA
Faxa: 943 77 07 92. Sakelakoa: 605 772 769



Jon Aspe Oyanguren

OYANGUREN
Iturgintza

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza •
- Gasa •
- Berogailuak •
- Peetrolio-produktuak •
- limatizazioa •

L. GONZALEZ

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D
ARETXABALETA
686 113 581 / 943 79 65 46

TXOMIN
igeltserotza
ARETXABALETA


ERREKABARREN 20
607 739 835 / 943 79 63 94



Instalazioen mantenuendua osoa
Berokuntza • Gasa
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97

Dintura eta dekorazioa



San Migel 13, behea C
ARETXABALETA
609 143 119

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETA

MUSAKOLA
Pinturak

Durana 27, 3. solairua
ARETXABALETA
Tel. 943 77 08 16 / 635 72 31 50

J.J. ITURGINTZA
IRURE

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE 15
ARETXABALETA

943 793 187



1996.



FERRETERIA • BRICOLAGE
INDUSTRIA HORNIDURAK

2003.

Garai berria, irudi berria.

